

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko uztaialak 10 - 1150. zenbakia



AURTENGO UDALEKU IREKIAK INOIZKO ITXIENAK


LENTILAK EROSTEAN
WILDGO
EGUZKITAKO
BETAURREKOA
OPARI

Barneko erabilera baino erabilera gehiago erabiltzea.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com 

merezi
duzun
herria



MADDALEN
IRIARTE
OKINENA

ehbildu

egiteko *maddalen*
ZURE LEHENDAKARIA

prest.

...eta kitto!-ren

itzulpen

fZU, tZU, tZU

zerbitzua



ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUZ.



elkartea@etakitto.eus



Hauteskunde ale berezia astelehenean kalean

Domekarako deituta dauden Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak direla-eta, betiko lez ...eta kitto!-k jarraipen berezia egingo dio jardunaldiari, egunean bertan goizetik hasita bildutako iritziak eta informazioa gure web orrian jasoz eta gualdean herriko emaitza guztiak kaleratzeko.

Bestalde, astelehen goizean kiosko eta beste hainbat saltokietan doan banatuko den Hauteskundeetako Ale Berezia aipatutako auzoz-azoko Eibarko emaitzak, alderdi politikoetako ordezkarien erreakzioak eta bestelako informazioa ere jasoko dugu.

Erredakzioa

“Desberdinu egin behar dira osasuna eta gaixotasuna: lehenengo guretako banakoari dagokio eta bigarrena sendagileari. Eltxo baten zitzadarekin, ez zara larrialdietara joan behar; badaezpada kontsultatzera bideratzen gaituzte, guk geuk kudeatu beharko genuenean. Pandemiarekin infantilizazio hori areagotu egin da. Gizartea eredugarria eta esanekoa izan dela diogu, atzetik isuna zegoela aipatu barik. Egunerokoarekin hasi garenean argi ikusi dugu zelan erantzuten dugun: gauza errazena ere txarto egiten ditugu. Zergatik? Kulturarik ez dugulako. Zeretik ehunera pasatzea eskatu digute eta hori ezinezkoa da. Ikastoletan eman beharko zen asignatura hori, gure osasunari zer komeni zaion jakin beharko genuke epidemiarik gainean izan gabe”.

JOSE LUIS PAULIN, medikua

“Badago ideia bat esaten duena familia bati laguntzen badiozu lan gutxiago egingo duela. Jarraipenezko proiektu batek hori aztertu zuen eta hori ez dela horrela ondorioztatu zuen. Familia behartsu bati behi bat ematen badiozu, hasteko lan gehiago egingo du behi hori zaintzeko. Eta, esaterako, poltsoak egiteko aukera ematen badiezu, hobeagoak, landuagoak eta akats gutxiagoekin egiteko gauza izango dira. Opariak ez dizkie alperagoak egingo; eskaini zaizkien ongizateak eta segurtasunak produktiboagoak bihurtuko dituzte”.

ESTHER DUFLO, ekonomilaria

“Gobernuaren taktika maltzurak diru-laguntzak jasotzen dituzten hiritarren kopurua igotzera darama, horrela beti botoa emango dien gehiengo sortuz eta boterean betirakotzeko. Zergatik ezin zaio Estatuak laguntzen edo ordaintzen dion horri boto eskubidea kendu?”

IÑIGO GOMEZ-PINEDA, Cisneros Fundazioko presidentea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MUSTURTU.- Haserretu. “Ez dakitt zergaitik, emazia musturtu jata”.

MUTILLAK!.- Mira, beldurra edo haserrea adierazteko interjekzioa. Esaldi hasieran erabiltzen da. “Mutillak! zer zuan ha! Hango zarraparria ta hango zaratia. Gitxienez bostehun bat bazittuan”.



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarteak
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Malen Illarramendi
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.780 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Orain dela urtebete horrelakoak ginen

60 urtetan hiru toki desberdinetan egondako Untzagako kioskoa itxi zuten Josefran Azpiazu "kioskeroa" jubilatzearekin batera. San Kristobalگو jaiak ospatu zituzten, Ramoncin-en kontzertuarekin. Silvia Zuluaga dietistak "El peso, ipor fin, mi amigo!" liburua kaleratu zuen. Miren Urizar waterpolistak Europako txapelketan hartu zuen parte Espainiako selekzioarekin. Herriko 32 jubilatuz izan ziren Errioxako San Asension La Sallek duen egoitzako udalekueetan. Ford Kondiakoek bigarren bezas zuten bezeroei emandako arreta saritzen duen "Chairman's Award" saria. Aldatze ikastetxeko Garazi Beitiak irabazi zuen estatu mailan antolatutako Elkanori buruzko lehiaketa. Udal Artxiboko hiru argazki ipini zituzten ikusgai herriko auzoetan.

1- Josefran Azpiazu Piruli kioskoa ixten. 2- San Kristobalگو jaien aurkezpena. 3- Jubilatuzak Errioxako udalekueetan. 4- Garazi Beitiak irabazitako Elkano sariarekin. 5- Silvia Zuluaga dietista bere bigarren liburuarekin. 6- Ford Kondiaren arreta saritu zuen "Chairman's Award"-ek.





#AlertaHoria kanpaina abiatu du DYA Gipuzkoak jendeari laguntza eskatzeko

>>> DYA Gipuzkoak #AlertaHoria kanpaina jarri du martxan gipuzkoarren bazkide-kopurua eta dohaintza ekonomikoak areagotzeko asmoz. Izan ere, konfinamendu-aldian egindako jarduerak kalte ekonomiko handia ekarri diote irabazi asmorik gabeko elkarteri eta herritarren elkartasuna eta babesa inoiz baino gehiago behar ditu DYA Gipuzkoak: "Alarma-egoera deklaratu eta konfinamendua hasi bezain laster, elkarteak bere baliabide guztiak herritarren zerbitzura jarri zituen, azken 45 urteotan edozein larrialdi gertatu den baikoitzean egin ohi duen bezala. Erakundeen laguntza barik ere, DYA Gipuzkoak 50.000 masak baino gehiago banatu ditu probintzia osoan zehar, 10.500 ordu baino gehiago eman ditu boluntariorizan, 40.000 kilometrotik gora egin ditu esku-har-

tzeetan, 1.700 test baino gehiago egin dizkie arrantzaleei eta 15.000 dei baino gehiago egin ditu telefarmazia zerbitzurako, besteak beste".

Elkarteak garatzen dituen jarduerak guztiak gipuzkoarren ekarpenekin finantzatzen dira eta, egoera ekonomikoa ahula dela eta, herritarrei laguntza eskatzeko ipini dute martxan #AlertaHoria kanpaina. Laguntza horiek bideratu eta egiten dutenaren berri emateko <https://dyakbearzaitu.eus> webgunea sortu dute eta, nahi izanez gero, Bizum bidez ere eman daiteke dirua, 38071 zenbakian.

1973an sortua, DYA Gipuzkoak hainbat arlotan garatzen du bere lana eta probintzian zehar 13 ordezkari dazka. 500 boluntario baino gehiago eta 30.000 bazkide laguntzaile aritzen dira bertan.



Hogeitabosgarren eguna bete da positibo berririk gabe Eibarren

>>> Eguaztenean Osasun Sailak argitaratutako txostenaren arabera, bezperan PCR bidez atzemandako koronabirus kasuak 31 izan ziren EAEn. Lurraldeka, 8 kasu Araban izan ziren, 4 Bizkaian eta 19 Gipuzkoan. Gure probintziari dagokionez, hauek dira positibo berrien inguruko datuak: 11 Ordizian, bi Tolosan eta Itsasondon, eta kasu bana Zuma-

rragan, Zegaman, Ibarren eta Andoainen.

COVID19-ak Eibarren izan duen eboluzioari begiratzen badiogu, 216 dira metatutako edo pilatutako positiboak, eta azken 25 egunetan ez da kasu berririk atzeman (azkena ekainaren 12koa da). Martitzenean 5.027 proba egin ziren guztira (4.533 PCR eta 494 test azkar), eta bi hildako gehiago egon ziren.

4829 zenbakiak jasoko du Amañako jaietako saria

>>> Amañako Jai Batzordetik jakinarazi dutenez, martitzenean egin zen hainbat produktu biltzen dituen eta Aste Santurako iragarrita zegoen zozketa eta saria 4829 zenbakiarentzat izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Irabazleari eurekin kontaktuan ipintzeko eskatu dute, saria jaso ahal izateko.



ADELAIDE BONETA SARASUA

(2020ko maiatzaren 27an hil zen)

URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA

EUSKO ALKARTASUNAko kideek

Hileta elizkizuna izango da uztailaren 12an,
eguerdiko 12:30ean, Arrateko Andra Mariaren santutegian.





Eibartarrek gogor gaitzetsi dute eraso matxista

>>> Martitzen arratsaldean, 15:40ak aldera, gizon batek labankadaz zauritu zuen bere bikotea kalean, adin txikiko semearen aurrean. Eraso Ipuruan gertatu zen, Guardia Zibilaren koartelatik gertu, Sostoaarren kalera igotzeko eskaileren inguruan. Horren berri izatean, Eibarko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak adierazpen instituzionala egin zuen, “gertatutakoaren aurrean gaitzespenik handiena adierazteko”. Horrekin batera, biktimari Udalaren laguntza osoa eskaini zioten, Berdintasun Sailak ematen dituen zerbitzuak bere esku jarrita. Adierazpenean Udalak “indarkeria matxistarik gabeko gizarte parekide baten alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa” berretsi zuen. Eguaztenean, berriz, Nalua Eibarko talde feministak deituta manifestazio zaratatsua egin zen.

Hauteskundeetarako segurtasun eta higie protokolo berria guztiz zehazten ari dira Udalean

>>> Domekako hauteskundee-tara begira, osasun eta segurtasun neurriak guztiz zehazteko lanean ari direla jakinarazi du Udalak, “bai mahaikideen bai bozkatzera doazenen segurtasuna bermatzeko”. Asmo horrekin ezarriko diren neurri berezien artean, besteak beste, hauek aipa daitezke: mahai ba-koitza normalean baino luzeagoa izango da (6 metroko luzera izango du, gutxi gorabehera), horrela bertan jarri behar diren arteko segurtasun-tartea zaindu ahal izateko; horrekin batera, mahaietara joateko zein irteteko ibilbideak seinalez-tatuta egongo dira; eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa ipiniko dute eskuragarri eta, hautesleketan bete beharreko guztiak betetzen direla zaintzeko, polizia eta segurtasun-kontrolak ezarriko dituzte. Aipatu-takoekin batera, botoa eman ahal izateko derrigorrez joan beharko da maskara jantzita, hautesleketatik guztiz irten arte. Hauteskunde Batzordeak ezarritako neurri horiek bete ahal



izateko, Udalak hautesleku batzuen kokapena aldatu behar izan du. Zehazki, aldaketak izango dira Amañako dorreetan dauden mahaietan, Amañako parrokiako lokaletan daudene-tan, Egogain gerontologikoan eta Coliseo antzokiko mahai batzuetan. Udalak oharrak jarri ditu toki-aldaketa izango dutenen pegoretan. Zalantza izanez gero, gogoratu etxeko buzoian jasotako errolda-txartelak adierazten duen lekura joan beharko dela beti.

Udal Brigadako beharginak ohiko eginkizunetara bueltatu dira

>>> Osasun-alarma egoera amaitzearekin batera ekin dio Eibarko Udal Lantaldeak berriz ere bere ohiko lanei. Eginkizun horiek bertan behera geratu ziren koronabirusa agertu zenean, eta haien ordez Lantaldeko behargin guztiak, 30 baino gehiago, kaleak eta hiri-altzariak desinfektatzen aritu ziren. Normaltasun “berria” ezarri zenetik, baina, betiko lanetara (altzarien mantenimendua, lorazaintza, pintura, elektrizitatea eta igeltseritza) itzuli dira, “nahiz eta gune publikoen desinfekzio-lanekin jarraitu, Mankomunitateko langileekin batera”. Hala ere, Udalak giza-



legez jokatzeko eskatu nahi die herritarrei: zaborra edukion-tzietatik kanpora ez lagatzeko eta aire zabaleko jardueretan erabili diren poltsak, botilak eta bestelakoak zaborretara botatzeko, besteak beste.

Dirulaguntza gehiago dendak egoera berrira moldatzeko

>>> Eusko Jaurlaritzak dendak berritu eta gaur egungo egoeraren eskakizunetara moldatzeko dirulaguntza plan berria ipini du martxan. Eibarko Merkataritza Bulego Teknikoan informazioa eman eta eskaerak egiten lagunduko diete interesa duten Eibar, Ermua, Elgoibar, Soraluze eta Mendaroko dendariei, uztailaren 24ra bitartean

eurengana jotzen badute. Egin-dako inbertsioaren %16 eta %40 bitarteko dirulaguntzak izango dira eta, besteak beste, lokalak konpontzeko beharrak egiten dituztenek, lanerako ekipamendua erosten dutenek edo webguneak sortu edo moldatzen dituztenek eska ditzakete. Informazio gehiagorako deitu 943206669 zenbakira.



Vending makinetako maskarak kobratzen hasi dira astelehenean

>>> Astelehenaz geroztik, herriko hainbat tokitan dauden vending makinetako maskarak eskuratzeko ordaindu behar da. Orain arte doan hartzeko erabiltzen zen txartela dutenek unitateko 0,60 euro ordainduko dute eta txartelik ez dutenek, berriz, euro bat. Nahi izanez gero bost unitateko paketeak eskuratu daitezke, 3 eurotan txartela erabiliz gero eta, bestela, 5 eurotan. Aurreko astean alkateak eta Carlos Abad Urkotronikeko zuzendari-gerenteak eman zituzten datuen arabera, maiatzaren 15etik uztailaren 3ra bitartean eibartarrek doako 230.000 maskara baino gehiago eskuratu dituzte hirian jarritako vending makinetan. Beste-tala esanda, lau unitateko 57.500 pakete inguru banatu dituzte. Batez beste egunean 5.000 eta 6.000 maskara artean banatu dituzte makinaren bitartez eta

230 aldiz baino gehiagotan bete dituzte. Bestalde, maskarak doan eskaintzeari utziko zaion arren, Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailak familia ahulenei eta DSBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) jasotzen dutenei laguntzeko aukera aztertuko du, maskarakeskuratzeko gastuak neurri handi batean beteta gera daitezken.

Alkatearen arabera, "azken hilabeteetan jorratu dugun proiekturik garrantzitsuena izan da, lankidetzta publiko-pribatuaren adibide argia". Udalak 120.000 euro baino gehiago inbertitu ditu ekimenean eta Urkotronikek ere ipini du dirua. Berarekin batera, Larrevending, Azkoyen eta SD Eibar enpresek parte hartu dute eta Txinako Tukaik dohaintzak eman ditu, Antxon San Miguel eibartarrari eta EIPC -ri esker.



Hautagaitza "inor barik" aurkeztu duela argitu du EQUO Berdeak-ek

>>> Ekaineko azken asteleheneko Udaltzaren bilkuran hainbatentzat gauzak guztiz garbi ez daudela ikusita, EQUO Berdeak alderditik argi laga nahi dute domekako hauteskundeetara "bakarrik, beste inoren laguntza barik" aurkeztuko direla. Horrekin batera, Eibarko Udalean 2015-2019 legegintzaldian aritu direla ere gogoratu nahi dute, aipa-

tutako epe horretan zinegotzi karguan egon zen Maria Jesus Agirre ordezkariak egindako lanarekin. Aurreko astean, egunean, alderdiko hautagai eta ordezkariak Eibarren egon ziren. Kanpainaren barruan antolatutako ekitaldian, besteak beste, Edurne Baranda hautagaiak hartu zuen parte. Taldeko ordezkariak Zaldibarrera ere joan ziren.

Udalak jasotako laguntza eskaerak aztertzen dihardu

>>> Enpresa txiki eta ertainei zein autonomoei laguntzeko 560 eskabide baino gehiago jaso dituela jakinarazi du Udalak. Dirulaguntzak eskatzeko epea ekainaren 30ean amaitu zen eta orain jasotako eskaerak aztertzen dihardute, dena ondo dagoela egiaztatzeko. Gehie-nez hiru hilabete luza daiteke ebazpena.



Eibarren badakagu

Denok irabazten dugulako





Oraindik erantzun eta erantzukizun eske, bost hilabete eta gero

Astelehenean bete ziren bost hilabete Verter Recycling 2002 SM enpresaren Zaldibarko zabortegia amildu eta bertan beharrean ari ziren Alberto Sololuze eta Joaquín Beltrán desagertu zirenetik eta, harrezkero hamaika alditan egin den bezala, zapatuan herritar mordoak zeharkatu zituen Eibarko kaleak, gertatutakoaren inguruan protesta egiteko. Untzaga plazatik abiatu aurretik, Jokin Bergara Zaldibar Argitu plataformako bozeramaileak gertatutakoaren inguruan erantzukizunak eskatu zituen, “higiene demokratiko hutsagatik” dimisioak egon behar direla azpimarratuz. Zaldibar Argitu plataformak deitutako mobilizazioa LAB, ELA eta CCOO sindikatuen babesarekin egin zen eta, eibartarrak ez ezik, Euskal Herriko beste toki batzuetatik etorritako ehundaka lagun bildu zituen. Lasai bete zuten ibilbidea, baina tarteka, isiltasuna apurtzen, “Zaldibar argitu!” eta “Arriola dimititu!” esaldiak oihukatu zituzten. Untzagara bueltan, plataformako ordezkariak komunikatua irakurri zuten eta, ekitaldia ixteko, Maite Arroita Jauregi, Zalao Urain, Miren Narbaiza eta David Karba musikariek zuzenean jo zuten Zaborrezko Munstroa, auzi honen inguruan salaketa egiteko sortutako kantua. Argazkiak: SILBIA HERNANDEZ







La Salleko Lore Arizaga eta Leire Etxeberria, eta Aldatzeko June Fidalgo eta Anne Luengo. A. AIZPURUA

EusLider: Gazteentzat euskara atsegina eta dibertigarria egitea helburu

Aurtengo ikasturtean Eibarko DBH-ko ikastetxeetan (Eibar BHI, La Salle eta Aldatze) DBH 3 eta 4ko ikasleek eusLider egitasmoaren bigarren zikloan parte hartu dute. DBH 4-ko 70 bat ikasle boluntario (eusLider) aritu dira DBH 3-ko ikasleei (290 inguru) saioak ematen. Hauek dira eusLiderrak saioen helburuak: hizkuntzekiko jarrerak landu, eraldaketa sustatu, portaera berriak sortu eta hizkuntza-lidergoa indartu. Azkenean, jabetza eta ahalmentze prozesu batez dihardugu.

EusLider, "hizkuntza-lidergoa sustatzeko" proiektua, abian ipini zuen Eibarko AEK-k 2018-2019 ikasturtean gure herriko DBH 3-ko ikasleekin batera. Helburuak gazteen hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskara gehiago erabiltzearen aldeko aldaketa sustatzea dira, aldaketa hori "modu atsegina eta dibertigarria" egin daitekeela erakutsiz.

Hain berezia izan den ikasturte honetan (2019-2020)

eusLider egitasmoaren II. zikloa burutu da Eibarko DBH-ko ikastetxeetan (Eibar BHI, La Salle eta Aldatze). Ahize-AEK-ko irakasleek gidatu dute proiektua, AKEBAIk finantzatuta.

Guztira DBH 4-ko 70 ikasle boluntario (eusLider) ibili dira DBH3-ko 290 bat ikasleri saioak ematen. Saioak jaso ondoren, eurek eman dizkiete 3. mailako. Boluntario horietako batzuekin egoteko aukera izan dugu: Eibar BHIko Aiz-

pea Laskurain; La Salle ikastetxeko Leire Etxeberria eta Lore Arizaga; eta Aldatzeko June Fidalgo eta Anne Luengo. DBH 4-ko beste boluntarioekin batera, 3. mailakoekin jardun dute, ikasitako guztia transmititzen.

Hizkuntza-lidergoa indartu eta aktibatu

II. zikloan, DBH 3-ko ikasleak sentsibilizatu, hizkuntzen garrantziaz jabetu eta haien arteko euskararen erabilera

informala sustatzeko tailerra egin da. Horretarako, I. zikloko parte-hartzaile eusLiderrak (DBH 4-ko ikasleak) formatu dira dinamizatzaile lanetan jarduteko eta eurek gidatu dituzte II. zikloko saioak. Metodologia honekin borondatezko hartzaileen hizkuntza-lidergoa indartu eta lidergo katea aktibatuta da.

Eibar BHI-ko Aizpea Laskurainek azaldu digunez, "iaz, DBH 3an, AEKtik etorri zitzaizkigun hitzaldi batzuk em-



Aizpea Laskurain Eibar BHIko ikaslea. A. AIZPURUA

tera; euskararen garrantziari buruz hitz egin ziguten, eta konturatu ginen gure hizkuntzari garrantzi gutxi ematen diogula. Saioak oso dinamikoak izan ziren, jolasen bitartez egin genituen. Proiektuaren parte izan nahi genuen, hau da, eusLider izan nahi genuen galdetu ziguten, eta gelako askok baietz esan genuen. Amaieran, herriko beste ikastetxeekin batera Untzagan ekitaldiak egin genituen taldeka: pintxo-lehiaketa, karaokea, ginkana... Jende asko elkartu zen eta oso ondo pasatu genuen".

"EusLiderrak egitasmo garrantzitsua da gazteen artean euskera bultzatzeko"

Aizpearen ustez, oso garrantzitsua da horrelako ekitaldiak antolatzea: "Gure adinarekin ez dugu baloratzen euskaldunok daukagun altxorra, eta oso erraz jotzen dugu gaztelerara. Ez gara konturatzen euskarak duen garrantziaz. Egitasmo hauek oso lagungarriak dira gure hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Gure aurrekoek gauza asko egin dute euskara bizirik irauteko, eta horixe bera egin behar dugu geuk ere".

Pandemiak eragindako ikasturte berezia

Aurtengo zikloari amaiera emateko, "ekintza soziala" prestatuta zegoen martxoaren 27rako, baina COVID 19ak sortutako alarma egoeragatik bertan behera geratu zen. Horren ordez, eta egitasmoari behar bezalako amaiera emateko, sare sozialetan zabaltzeko bideoak egin dituzte.

Aizpeak dioenez, "aurten ez da erraza izan gauzak egitea. Pandemiak gure asmoak zapuztu ditu, baina zeozer egin

"Pandemiaren erruz, aurten ezin izan dugu kalean ezer egin, eta bideo batzuk prestatu ditugu"

dugu. Kaleko ekitaldiak egitea ezinezkoa izan denez, bideo bat sortu dugu".

Gauza bera azaldu digute Aldatze ikastetxeko June Fidalgok eta Anne Luengok. Sarearen bidez harremanetan egon dira irakasle batekin. "Untzagakoa egitea ezinezkoa zenez, bideo bat egitea proposatu zigun. Ideia ona iruditu zitzaigun eta 3. mailakoekin harremanetan jarri ginen". Bideoan 'Udarako gau luzeak' kantua abesten agertzen dira.

La Sallekoak ere zerbait prestatzen ari dira. Leire Etxeberriak eta Lore Arizagak esan digutenez, "3. mailakoak txisteak jasotzen dituen bideoa dabilta egiten". Ikasturtearen hasieran La Salleko 4. mailako eusLiderrak ere AEK-ko teknikariekin egon ziren; iaz egindakoa erreparatu eta, ondoren, gelarik gela eta talderik talde joan ziren 3. mailakoeri azalpenak ematen. "Azken batean, kate bat sortzen da, guk ikasitakoa atzetik datozenei irakasten diegu". Ekintza soziala nola egingo zuten pentsatzen hasi eta euskal jokoak eta jolasak egitea erabaki zuten. Gero, "pandemia etorri zen eta dena bertan behera laga behar izan genuen".

Oso ondo gogoratzen dituzte denek iazko ekitaldian elkarrekin igaro zituzten une atseginak. Aldatzekoek play-backa antolatu zuten, epai-mahai eta guzti, eta La Sallekoek modelopasea. Instikoeke pintxo-lehiaketa prestatu zuten. Ilusio handiarekin egindako jarduerak izan ziren. Gainera, ginkana bat egon zen. Aurten ezin izan dute horrelakorik egin: "pena

handia ematen digu, baina behintzat bideoak egin ditugu".

Gazteen artean euskara zabaldu

Euskara bultzatzea da eusLiderrren helburua eta, diotenez, "esperientzia honen bitartez euskarari buruz ezagutzen ez genituen gauza asko ikasi ditugu". Onartzen dute, dena dela, umetan baino gutxiago hitz egiten dutela euskaraz lagunen artean. Proiektu hauek oso garrantzitsuak direla uste dute, "horrelako ekintzak antolatzen direnean, euskaraz jarduten dugulako, ia konturatu gabe".

Modu atsegin eta dibertigarrian

Egitasmoaren arduradunen berbetan, "hizkuntza ohiturak modu atsegin eta dibertigarrian aldatu daitezke, ez da ezinezkoa eta ez dauka zertan aspergarria izan. Horretarako, eta parte hartzaileen interes arlo eta motibazioetatik ahalik eta gertuen, helburu hauek lortu nahi ditugu: hizkuntzekiko begirune handiagoa izatea, hizkuntza portaera berriak sortzea eta gazteen hizkuntza-lidergoa indartzea".

Aipatutako helburu horiek lortzeko, egitasmoak hiru fase dauzka: "Lehenengoan, erakundearen atxikimendua eta parte hartzaileen jakin-mina asetzeko kanpaina egiten da. Bigarren fasean aurrez aurreko hiru saio egiten dira ikasleekin. Saio horietan portaeran aldaketa eragin dezaketen faktoreak lantzeko informazio esanguratsua ematen zaie, aldatzeko motibazioa landu eta horren beharra ikusarazteko. Hau da, aldaketa sustatzen da eta horretarako ereduak eta baliabideak eskaintzen zaizkie. Aldaketa egingarria dela ikusteko eta trabak gainditzeko prestakuntza ematen diegu, besteak beste. Eta hirugarren fasean aurrez aurreko hiru saio gehiago egiten ditugu, izena eman duten boluntarioekin. Saio hauetan ekintza sozial bat garatzeko lanaketa egiten da eta, amaitzeko, ikasleek aukeratutako ekintza bat egiten da". ■

zarelakopara

<<< ...eta kitto! Euskara Elkarte >>>

“Irakurtzeko astirik ateratzen badugu, zer irakurtzen dugu?”

Urte berezi honetan inoiz baino denbora gehiago izan dugu egunerokoa egiteko tarterik topatzen ez ditugun gauzetarako. Asti falta omen da nahi beste ez irakurtzeko arrazoia, baina, egia al da hori? Eta aukera dugunean zer irakurtzen dugu? Eta, batez ere, zein hizkuntzatan?

Sarritan entzun izan dugu gazteek gutxi irakurtzen dutela, helduek baino gutxiago bai behintzat, baina hainbat ikerketek agerian laga dute gazteek helduek baino gehiago irakurtzen dutela. Beste kontu bat da sasoi batean baino gutxiago irakurtzen dugula orohar.

Gaur egun euskeraz merkaturatzen diren liburuen erdia ume eta gazteei zuzenduta daude, baina gazteek gustuz irakurtzen dute edo eskolak behartuta? Izan ere, irakurtzea gozatzeko bidea izan beharrean, derrigorrez egin beharreko kontua da askorentzat.

Gustuz irakurtzen dutenek gaztekeraz egiten dute euskeraz baino gehiago eta horren atzean bi arrazoi nagusi daude: batetik, erosotasuna (ohi-

turirik edo nahikoa gaitasun ez dagoenean), eta, bestetik, euskeraz nahi edo gustuko dutena ez aurkitzea.

Hizkuntzaren normalizazioa esaten dugunean minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztiak betetzeko prozesuaz ari gara. Hau da, euskerak eremu guztiak bere egiteaz. Zentzu

horretan, ezinbesteko funtzioa edota eremua betetzen dute hedabideek, eleberriek, blogek, komikiek... Hizkuntza idatziak berak.

Nabarmenak dira irakurtzearen abantailak: asko ikasi daiteke, irudimena pizten du, ez da zaletasun arriskutsua, merkea da, hiztegia aberasten du, arreta-gaitasuna areagotzen du...

...eta kitto! Euskara Elkarteak bere sorreratik landu ditu irakurtzeko eta idazteko zaleztasunak bultzatzeko ekimenak, eta horren adierazle garbiak dira astekaria bera, ikasleei zuzendutako Txikitto! hilabeteakaria, Harixa Emoten literatura-tertuliak, Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketa...

Izan ere, ondo baino hobeto dakigu zeinen garrantzitsua den euskeraren normalizaziorako euskerak esparru guzti horiek betetzea. Ezin dugu ahaztu aldamenen dugula gaztelera handi eta boteretsua, eta euskerak eremurik eta funtziorik gal ez ditzan euskerazko eskaintza duina, ulerterraza eta kalitatezkoa egin beharko dugula. Baina haratago joan behar dugu; gozamenarekin lotu behar dugu,

“Hizkuntzaren normalizazioa esaten dugunean minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztiak betetzeko prozesuaz ari gara”



Hilean behin elkartzen dira literatur-zaleak Harixa Emoten tertulien inguruan.

zerbait atsegina eta gustokoa izan behar du, herritarrekin hartu-emana ahalbideratzen duena. Herritarrak jasotzaile hutsak balira produktu, zerbitzu edota eskaintza ahulagoa egiten arituko ginbateke, non alde bakarrek bidea besterik ez genukeen jorratuko.

Herritarrekin, ikasleekin, irakasleekin, literaturzaleekin, liburutegien arduraduenekin, liburudendekin... elkarlanean aritzeak egiten dituzte egitasmo txiki horiek handi. Zu gure idazmakina **ZARELAKO gara** kolorez beteriko liburua, gure orri-markatzailerak **ZARELAKO gara** atalez beteriko eleberria.

Ekimenei eusteko zeu **ZARELAKO** oinarria, bazkide edo ekarpenak egiteko deialdia egiten dizugu. ■

Bazkietza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Urteak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatutak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

* Urteko kopuruak dira

zueiesker...

Euskeraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna txikitatik piztea betidanik landu izan du ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta horren adierazle garbiak dira Txikitto! LHko ikasleei zuzendutako hilabetekaria edota Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketa (LH eta DBHko ikasleentzat).

Txikitto! hilabetekaria ikastetxeekin batera lantzen dugu, eta hilabetekario atal batzuk (denborapasak, txisteak, ipuinak...) ikasleek egiten dituzte. Tamalez, aurtan, urtarrila eta otsailakoa besterik ezin izan ditugu banatu ikasleen artean; martxokoa ere prest izan arren, ezin izan genuen banatu ikastetxeak itxi zituzten-eta. Gure asmoa da "galdutako" ale horiek udazkenean berreskuratzea.

Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketa egitea lortu dugu, oso modu bitxian izan bada ere. Urtarrilean hasi ziren ikasleak lanak idazten eta martxokoa hasieran jaso genituen egindako lanak epaimahaikideen artean banatzeko. Konfinamenduak une horretan harrapatu bagintuen ere, ez genituen egindako lanak saritu gabe laga nahi. Hamaika estrategia eta modu erabili genituen, orain arte aurrez aurre izaten zen ebazpena eta sari-banaketa online egin ahal izateko, eta lortu genuen (hemen ikus dezakezue: <https://youtu.be/RiekPRPXIOQ>)

Zaletasunaz gain, haratago joan direnek, literaturzaleek, badute euren programa propioa ere: "Harixa Emoten", Udala



Liburutegiarekin batera, eta Antxon Narbaizaren gidaritzapean hilean behin egiten diren literatur-tertuliak. Liburu bera irakurtzen dute parte-hartzaile guztiek eta idazleekin batera tertulia egiten dute irakurritakoaren gainean.

Euskerak gaztelarak beste leku izatea ezinbestekoa da euskeraren normalizazioan aurrerapausoak eman nahi baditugu. Euskera idatzia erakargarriagoa, atsegina, errazagoa eta hurbilagoa izan behar da, gaztelaren aurrean leku gehiago galdu nahi ez badu.

Horri eusteko zu ezinbestekoa **ZARELAKO gara**.



Euskeraz Primeran! txuletak banatzen dihardu ...eta kitto!-k

Aste honetako merkadilloan egon da eta hurrengo astekoan egongo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! kangopainarekin. Urteko sasoi honetan udako merkealdien azoka egin ohi da Toribio Etxebarria kalean, baina egoerak hala behartuta aurten ez da egingo. ...eta kitto!-k, hala ere, kalera irten nahi izan du, osasun- eta segurtasun-neurri guztiak zainduta, jakina, eta eguaztenean Urkizuko merkadilloan egon zen. Erosketak egiterako orduan lagungarriak izan daitezkeen "txuletak" banatu zituen, erabili ohi diren hainbat esaldirekin: "Azkena zein da?", "Zenbat da?"... Horrekin batera erosketetarako poltsa ere banatu zuen ...eta kitto!-k. Hurrengo astean berriro egongo da Urkizuko merkadilloan Euskeraz Primeran! kanpainarekin. Herritarrekin hitz egiteko aprobe txatu du ...eta kitto!-k merkadillo eguna eta erosketak egiteko orduan euskera erabiltzen ote duten galdetu die.



>>> "Gutxienez lehenengo hitza euskeraz egiten dut beti. Gero, saltzaileak ematen didan erantzunaren arabera euskeraz egiten jarraituko dut edo ez. Eibarrren, oro har, erosketak egin daitezke euskeraz. baina ez leku denetan.

Euskeraz Primeran! moduko ekimenak lagungarriak izan daitezkeela iruditzen zait; lehenengo hitza euskeraz egiteko gogoz dagoen jende asko dago, baina agian ez dakite nola egin. Horregatik horrelako kanpainak lagundu eta animatu egiten dutela iruditzen zait".



>>> Elena Fernandez

>>> "Nik normalean euskeraz eskatzen dut dendetan. Salbuespenak salbuespen, Eibarko dendetan euskeraz eskatu daiteke. Gero beste gauza bat da euskeraz berba egiten jarraitzea, baina lehenengo berba, behintzat, nik euskeraz egiten dut. Establezimenduetan euskeraren erabilera bultzatzeko kanpainak oso ondo ikusten ditut eta lagungarriak direla pentsatzen dut, baina benetan lagungarria dena da jendeak euskera ikastea. Azkenaldian igarri dut gazteen artean gero eta euskera gehiago erabiltzen dela eta horrek bultzada eman dio euskerari".



>>> Mikel Valenciaga



Nolako egoera, halako udalekuak

COVID-19a dela eta martxotik hona bizi izan dugun egoera guztiz ezohikoa izan da. Denok jasan ditugu ezinbestean osasun-egoerak ekarritako etxealdia, apurka-apurkako deskonfinamendua, normaltasun berrira egokitu beharra... Azken hilabeteotako egoera izendatzeko hitz bat erabili beharko bagenu, ezjakintasuna erabiliko genuke, bizitzaren arlo guztietara hedatu den ezjakintasuna, eta udaleku irekien kasua ere ez da salbuespena izan.

MALEN ILLARRAMENDI

Astixa eta Mitxeleta Eibarren udako umeen aisialdia antolatzeaz arduratzen diren zerbitzu-entresak dira. Bestalde, Asier Lopez de Viñaspre Udaleko kultura saileko arduradunak azalduko digu nola jokatu duten ezohiko egoera honen aurrean eta zer izan duten kontuan udaleku irekiak antolatu edo ez erabakitzeako orduan.

Bai udaletik eta baita aipatutako bi enpresetatik ere adierazi dute 2020ko udalekuak antolatzea ez dela batere erraza izan, zalantza asko egon baitira, orokorrean, udalekuen jarduerarekin aurrera egin ala ez erabakitzeako orduan. Asierrek dioskunez, “nahiz eta Eibarko Udalak apirilean aurrematrikula martxan jartzea erabaki zuten, maiatzaren erdialdera

EUDELeK, Euskadiko Udalen Elkartek, udalekuak ez antolatzeko gomendioa egin zuten. Astebetera INJUVE Instituto de la Juventud delakoaren proposamena jaso genuen, udalekuak antolatzeko arau eta neurriekin. Hori horrela, Eibarko Udaleko Gazteria Batzordeak ekainaren 11n, aho batez, udalekuekin aurrera egitea erabaki zuten”. Erabakiak kontziliazioa

ahalbidetzen zuten, batetik; eta, bestetik, umeen kalitatezko aisialdia bermatzea.

Antolatzeko modu berria

Astixatik eta Mitxeletatik azaldu digute udalekuak egin ahal zirela hain berandu jakiteak, presio handia eragiteaz gain, antolatzeko moduan ere eragin diela. Hala ere, biek ala biek argi zuten, gertatutakoa gerta-



Astixako umeak. Aurten umeek inoiz baino gehiago merezi dute elkarrekin ondo pasatzeko jarduerak izatea.



tuta, aurten umeek inoiz baino gehiago merezi zutela euren artean disfrutatzeko jarduerak izatea, baita hilabeteetan zehar falta izan zaien askatasuna berreskuratzea ere.

Izan ere, denontzat izan da latza itxialdia, baina esan genezake bereziki gogorra izan dela haurren kasuan. Beraz, orain, oporrekin eta eguraldi

onarekin batera, normaltasun berrira egokitutako udalekuez disfrutatzeko aukera izango dute herriko aisialdirako elkarteei esker, euren helburua izanik etxeko txikienek ondo merezitako oporraldia izan dezatela.

Aitortzen dute, hala ere, aurtengo funtzionamendua ez dela erraza izaten ari: etxean





Mitxeletako haurrek: segurtasun-neurriak zorrotz beteta, udaz elkarrekin gozaten dihardute.

“Haurren segurtasuna eta ongizatea bermatzeak ez dauka zertan bateraezina izan ondo pasatzearekin”

kalentura hartu beharra, musukoak, distantzia soziala, eskuak etengabe garbitu beharra, ekintza guztiak Eibarren bertan izatea, talde txikiagoak, jolasteko aukera gutxiago, materiala ezin elkarbanatzea... Baina umeak oso ondo egokitzen ari direla diote, eurentzat garrantzizkoena lagunartean disfrutatzea baita. Begiraleen hitzetan, “haurren segurtasuna

na eta ongizatea bermatzeak ez dauka zertan bateraezina izan ondo pasatzearekin, eta gu horiek uztartzen ahalgintzen ari gara. Hori bai, segurtasun-neurriak zorrotz beteta, egoerak eskatzen duen bezala”.

2020ko udaleku irekiak inoizko itxienak bezala gogoratuko ditugu, baina etorriko dira sasoi hobek! ■

FUNEUSKADI
Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA
Funerokiadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xialion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikoak	- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Barne Medikuntza	- Kirurgia baskularra
- Dermatologia	- Koloproktologia
- Dietetika / Nutrizioa	- Neurofisiologia
- Erizaintza	- Ortodontzia
- Familia medikua	- Otorrinolaringologia
- Fisioterapia	- Psikologia
- Foto-depilazio Unitatea	- Radiologia
- Kardiologia	- Traumatologia
- Kirurgia	- Urologia



Koldo Edorta Carranza

Koldo Edorta Carranza

Kaleko zinema

Pandemiak Coliseoko zinema aretoak ixtera behartu zuenetik, filmen egarria dugunotako batzuk jende artean pelikula bat ikusteko irrikitan geunden. Zorionez, konfinamendua arintzeak aurrez aurreko ekitaldi kulturalak antolatzeak aukera eman du. Hala, ekainaren 30ean Arrate Kultur Elkarteak Ikus-entzunezkoen Astearekin izotzaldia urtu zuen eta hainbat lan proiektatu zituen, tartean neurea. Berezia izan zen zirimiripean pantaila zuri handian irudi higikorak ikustea, azken hilabeteotako itzalak argitu balira bezala. Segurtasun-neurri jarraitzeko, aulkiak bata bestearengandik aldentuta zeuden, baina emanaldian zehar entzundako barre eta iruzkinek distantziak ezabatu zituzten. Bertan ikusgai egon zen *Ez, eskerrik asko. Gladysen Leihoa* lanean agerian geratu ziren bai norbanakoen mugimenduaren boterea, bai herritarrek zailtasunei aurre egiteko ahalmena. Agian balio horieko egoera honi aurre egiteko balio diezagukete, zeren eta askotan filmetan ikusitakoek gure egunerokoan laguntzen baitigute.

"Arrate Kultur Elkarteak Ikus-entzunezkoen Astearekin izotzaldia urtu zuen, eta hainbat lan proiektatu"

Beste alde batetik, antza denez, udan Eibarko zenbait txokotan euskal eta erdal ekoizpenez gozatzeko aukera izango dugu, behiala hain ohikoa zen kaleko zinema berreskuratuko baita. Filminen ikusi berri dudana *The Swedish theory of love* dokumentalean adierazten da nola Suediako biztanleriak gizartekotzeko ahalmena galdu duen, erabateko indibidualismoan murgildu delako. Horixe bera gure herrian gertatu ez dadin, giltzarria da esparru publikoan garatzen diren ekimenak sustatzea. Horregatik, espero dut jendeak normaltasun berriak jartzen dizkigun ozto-poak gainditzea eta emankizunetara joatea. Zinemagintzak, euskarak bezala, halako arnaguneen beharra baitu bizirik irauteko.



Arantza Mata

Arantza Mata

Etxerako lanak

Etxerako lanak bai ala ez? Ez da erraza galdera horri erantzutea, baina eztabaida sortzeko gai aproposa dela ezin daiteke uka. Irakasleek, ikasleek eta familiarek zeresan handia dugu gai horren inguruan, eta esango nuke klaustroetan, eskola kontseiluetan eta irakasle-familia bileretan gaia ez dela behar beste aztertzen.

Ikastetxe gehienek erabiltzen dituzte etxerako lanak, baina kontziente al dira ikaslearengan zein eragin duten? Neurriko lanak dira? Ikasleen ikasketa-prozesuan laguntzen al dute? Zer funtzio betetzen dute?

Irakasle askok ikasketa-ohiturak hartzeko eta eskolan garatutakoa sendotzeko beharrezkoak direla diote, baina etxerako lan horiek ikaslearen adinari eta gaitasunari egokitura al daude? Modu autonomoan egin ditzakete edo heldu baten laguntza behar dute? Irakasleen arteko koordinazioa egoten al da etxeko lanen karga kontrolatzeko?

Sarritan familia askotan etxeko lanak gatazka edota tentsio iturri dira. Izan ere, familia asko ez dira gai euren seme-alabei laguntzeko (maila akademikoagatik, hizkuntzagatik...), ariketa gehiegi direnean edota helduek etxerako lanen erantzukizuna beraien gain hartzen dutenean... Azken batean, ikaslea bere kabuz ez bada gai etxeko lanak egiteko, zein zentzu du etxeko lan horrek? Horretaz gain, ikaslearen familiaren egoera sozioekonomikoak ere desorekak sortzen ditu.

Etxerako lanak agintzen badira, ikasleen beharretara egokitutakoak izan behar dira, eta argi dago lan praktikoak izan behar direla, eguneroko bizitzarako baliagarriak izango direnak, alegia, eta EZ FITXA ERREPIKAKORRAK EDOTA LIBURUKO ARIKETA TRADIZIONALAK! Oraindik ere badaude Lehen Hezkuntzako ikasleak motxilan bi-hiru liburu eta koadernoan eramaten dituztenak, eta liburuko ariketa guztia koadernoan kopia behar dutenak. Hausnartzeko kontua, ezta? Noiz arte horrela?

"Sarritan familia askotan etxeko lanak gatazka edota tentsio iturri dira. Izan ere, familia asko ez dira gai euren seme-alabei laguntzeko"



Eibarko entitateak Euskaraldiarekin bat

Itzuli da hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoa. 2018ko esperientzia arrakastatsuari jarraituz, azaroaren 20tik abenduaren 4ra Euskaraldia egingo da bigarren aldiz, eta berritasunekin dator gainera. Oraingoan, ekimenak 15 eguneko iraupena izango du eta entitateak erakarri nahi ditu.

Ahobizi eta Belarriprest txapei distira ateratzen hasi gaitzeko. Hilabeteak falta dira Euskaraldirako, baina aspaldi hasi ziren pres-taketa lanak eta azken txanpan sartu gara. COVID-19ak pres-takuntza-lana erditik moztu arren, euskarak ez du etenik eta arazoaren 20tik abenduaren 4ra doazen egunek gorritz markatuta jarraitzen dute euskararen egutegian.

Herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea da Euskaraldiaren helburua. Horretarako, helduen aktibazioa du oinarri, eta euskara ulertzea da ariketa egin ahal izateko gutxienezko baldintza.

Aurreko edizioan bi figura edo rol aurkeztu zituen Euskaraldiak, ariketak irauten duen bitartean norberaren gaitasunaren edo ahalmenaren arabera pertsona bakoitzak euskararekiko izango duen jarrera adierazteko. Batetik, Ahobizi

figura dago. Ahobiziek euskara ulertzen duten guztiei euskaraz egingo diete berba eta ezezagunei lehen hitza euskaraz (ulertzen baldin badute, euskaraz jarraituko dute). Bestetik, Belarriprest rola dugu. Hauek euskaraz berba egiteko gai diren mintzakide guztiei euskaraz hitz egiteko gonbitea egingo diete, nahiz eta eurek euskaraz ez egin. Eibarren, gainera, hirugarren figura bat sortu zen: Bihotzgoxo. Nahiz eta euskaraz ez egin eta ez ulertu, euskararen aldeko jarrera dutenak dira Bihotzgoxoak.

Norberak hartutako rolaren txapa soinean jantzita, 11 egunez esperimendu sozial honetan hartu zuten parte milaka euskaldunek. Euskaraldiaren inguruan egindako ikerketaren arabera, arrastoa utziko duen esperimendu handia izan zen. Ariketak hizkuntza portaera eta ohituren gaineko hausnarketa eta aldatetako bultzatu zituen. "Hasi besterik ez

2018ko Euskaraldia arrastoa utzi duen esperimendu sozial handia izan zen

da egin", esan zuen ikerketaren harira Euskaraldiaren lan-taldeak. "Euskaraldia bide baten hasiera izan da".

Ariguneak osatzen

Bigarren ediziorako, beraz, beste pausu bat eman nahi izan dute antolatzaileek. Norbanakoei Ahobizi eta Belarri-

prest figurekin parte hartzeko aukera emateaz gain, oraingoan entitate edo elkarteei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egingo zaie, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsak ematen hasi daitezten, eta entitateko kideen parte-hartzea sustatu eta babestu dezaten.

Entitateek Ariguneak sortzeko aukera izango dute, euskaraz egiteko guneak. Ariguneetan euskaraz berba egiteko aukera bermatzen da uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Horrela, nahiz eta talde hauetako kideek Euskaraldian Ahobizi edo Belarriprest bezala jardun, ariketa modu kolektiboan gauzatu ahal izango dute.

Bi motako Ariguneak egongo dira. Batetik, Barne-Ariguneak, entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskaraz ulertzen duten taldeak. En-

titate motaren arabera, ohiko funtzionamendua duten talde horiek askotarikoak izan daitezke (sailak, atalak, eki-poak, sekzioak, zerbitzuak, taldeak...) eta, Barne-Arigunea osatzen, modu kolektiboan euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrerapausoak ematea erabakiko dute. "Arigunea osatzeko beharrezkoa izango da taldeko kideen %80a gutxienez ados egotea. Ariguneetako kide bakoitzak erabakiko du Ahobizi edo Belarriprest moduan parte hartzea", diote Euskaraldikoek.

Bestetik, Kanpo-Ariguneak daude. "Entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonak osatzen dute Kanpo-Arigunea, uneoro Belarriprest edo Ahobizi bat egongo dela bermatzen bada; hau da, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea badute. Horrelako espazioak izango dira jendaurreko edo harrera postuak, supermerkatuetako kutxak, telefono bidezko arreten arduradunak, tabernariak edo dendariak, besteak beste", Euskaraldi-koen berbetan.

Eibarko entitateak martxan dagoeneko

Euskal Herriko hainbat herritan hasi dira Ariguneak osatzen eta baita Eibarren ere, nahiz eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiak egitasmoaren berri emateko planak zapuztu dituen. "Martxoan Euskaraldiaren berri emateko asmoa genuen, baina itxialdiaren ondorioz ezin izan genituen pentsatuta genituen ekintzak egin", esan digu Idoia Argoitia Akebaiko koordinatzaileak.

Ez da sasoi erraza herriko elkarte, enpresa eta erakundeentzat, baina Euskaraldia aukera ona izan daiteke eurentzat, euskara bultzatzeaz eta euskararen erabilera sustatzeaz gain, Euskaraldiak entitate horiek bistaratzeko lagundu dezakeelako. "Euskarak denok batzen gaitu", esan digu Argoitiak.



Ariguneetan euskaraz berba egiteko aukera bermatzen da uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean

Herriko enpresa, erakunde eta elkarteei Euskaraldian parte hartzeko eta Ariguneak sortzeko gonbidapena bidali diete, eta batzuk hasi dira animatzen. Beste batzuek, ordea, ez dute gutunik jaso behar izan egitasmoarekin bat egiteko. "Naluakoek, adibidez, guk ezer esan barik eman dute izena", dio Argoitiak. Ikusten denez, hasi dira motorrak berotzen eta irailan, "egoerak lagatzen digun neurrian", kanpaina indartuko dute.

Ariguneak sortu eta entitateek izena emateko epea irailaren 27ra arte egongo da irekita, eta euskaraldia.eus eta akebai.eus web orrietan jaso daiteke horren inguruko informazio guztia. ■



LAES dendako Jaione Illarramendi

"Berba gutxi batzuk eginda ere, euskara asko ikasten da"

Nola jaso duzu Euskaraldiaren 2. edizioan entitate moduan izena emateko informazioa?

Etxeko buzoian gutuna jaso nuen eta bertan azaltzen zen aurtengo Euskaraldiari buruzko informazioa. Aurreko edizioan Belarriprest bezala hartu nuen parte eta pentsatzen dut horregatik bidaliko zidatela gutuna.

2018ko Euskaraldian parte hartu zenuen, beraz. Zeintzuk dira 2. edizio honen berritasun nagusiak?

Bai, Belarriprest txapa jantzi nuen aurrekoan. Hau da, beti ez dut euskaraz egiten ulertzen dutenekin, baina euskaraz dakitenek niri uneoro euskaraz berba egitea nahi nuen. Aurtengo edizioan, bestalde, entitate moduan parte hartzeko aukera dago Ariguneekin eta, Amañan denda dudanez, horrela hartuko dut parte.

Zerk bultzatu zaitu izena ematera?

Euskara bultzatzeko gogoak. Oso garrantzitsua da gure hizkuntza bizirik jarraitzea eta, ez badugu egunero erabiltzen, txarto gabilta.

Zergatik da garrantzitsua entitate moduan Euskaraldian parte hartzea?

Txikitan ez nekien euskaraz berba ondo egiten eta orain asko kostatzen zait aditzak zuzen erabiltzea. Pena ematen dit. Horregatik, dendetara joaten garenean euskara erabiltzen saiatzea oso garrantzitsua dela uste dut. Esaldi motzak edo berba batzuk besterik ez badira ere, asko ikasten da.

Zer esango zenieke Eibarko entitatei Euskaraldian parte hartzeri anima daitezen?

Denon artean, pixkanaka, asko lortu dezakegula. Kaleko jendeari asko gustatzen zaio euskaraz agurtzea eta horrela, poliki-poliki, esaldi motzak ikasten ditu.



NALUA Eibarko feministak

“Garrantzitsua da feminismoa euskaraz elkarrekin bizitzea”

Nola izan duzue Euskaraldia-ren 2. edizioaren berri?

Sare sozialetan, komunikabideetan... izan genuen Euskaraldiaren bigarren edizioaren berri, baina ez genuen gaia bilera batean jorratu, egutegian nahiko urrun ikusten genuelako. Orain dela pare bat hilabete Eibarko Euskaraldiko batzordea gurekin harremanetan jarri zen aurtengo Euskaraldiaren nondik norakoak azaldu eta izena ematera animatzeko. Horren ostean taldean komentatu eta izena ematea erabaki genuen.

2018ko euskaraldian parte hartu zenuten?

Bai, 2018ko Euskaraldian parte

hartu genuen gehienok, baina bakarkako ariketa zenez, talde bezala ez genuen gaia berariaz landu eta esango genuke ez zigula aldaketa askorik eskatu, eguneroko jarduna euskaraz egiten baitugu. Bigarren edizio honek, ordea, talde bezala izena emateko aukera ematen digu, Arigune bezala hain zuzen. Hori dela eta, gutako bakoitzak norbanako bezala hartutako konpromisoaz gain, talde bezala ere Euskaraldian euskaraz jarduteko konpromisoa hartzeko gonbita egiten digu ekimenak, euskararentzat ezinbestekoak diren arnasguneetako bat izaten eta ingurukoei hala adierazten. Guretzat

garrantzitsua da horrelako ekimen batean kolektiboan parte hartu ahal izatea eta elkarrekin egitea feminismoa euskaraz bizitzeko ariketa.

Zergatik eman duzue izena?

Dakizuen moduan, feminismoa da NALUAren borroka esparru nagusia; baina ez bakarra. Gure lana euskaraz egiten dugu, gure arteko harremanak euskaraz eraikitzen ditugu eta, hortaz, gure feminismoa euskalduna da. Hasieratik hartu genuen erabaki hori, eta ez pentsa, arazoak ere izan ditugu. Gure hautua ez ulertzeaz gain, behin baino gehiagotan kritikatuta izan dute zenbaitek: bilerak

euskaraz egiten ditugulako edo antolatzen ditugun ekimenak euskaraz izaten direlako gehienetan. Zentzu horretan ahaldundun ere ezinbestekoa izan da guretzat, eta horretarako Euskaraldia bezalako tresnak oso baliagarriak dira.

Zergatik da garrantzitsua zuenztat entitate moduan parte hartzea?

Feminismotik ikasi dugu pertsonala politikoa dela, baina baita norbanakotik kolektiborako jauziak iraultza dakarrela ere. Entitateok, eragileok eta kolektibook ikaragarritzko pisua dugu euskal gizartean eta baliatu egin behar dugu indar hori. NALUAko kideok konpromisoa hartu nahi dugu, arinkeria eta itxurakeria nagusi den honetan konprometitzea inoiz baino garrantzitsuagoa delako.

Zer esango zeniekete Eibarko entitateei Euskaraldian parte hartzerako animatu daitezuten?

Oso egoera zaurgarrian gaude; lehen baino gehiago. COVID-19ak dena jarri du hankaz gora; baita euskararen normalizazioa ere. Adibidez, ikastetxeetako jarduna bertan behera geratu da eta, horrekin batera, haur eta nerabe askok euskararekin zuten harremana eten dute. Pandemiak agerian utzi ditu aldatu beharreko hainbat alderdi; guztiok konturatu gara gauzak ez direla behar bezala egiten. Euskarari dagokionez ere, erronka berriak ditugu esku artean eta, entitateon pausu txikiekin, Euskaraldiak pausu erraldoiak emango ditu.

MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

7. urteurrena: 2013-VII-7



*Zuk emandako maitasunak
gurekin jarraitzen du*
Maite zaitugu, Amama



Kulturak herriko kaleak berreskuratuko ditu uztailean eta abuztuan

Eibarko kaleek ohizko jarduna berreskuratzen hasi dira poliki-poliki. Dendak zabaldu dituzte, egarria asetu dezakegu tabernetan eta umeek parkeetan jolastu dezakete behingoz. Eta kultura? Ahaztua eta gutxietsia, lehenastun bigarren edo hirugarren lekuan geratu da, baina heldu da kultura egin eta jasotzeko unea. Egoera berezia bizi dugu, mugak eta baldintzak ditugu nonahi, baina aurrera jarraitu ahal izateko neurri bereziak hartu behar dira eta, udako eguraldia aprobeztatuz, kultura kalera atera nahi izan du Udalak. Uztailean eta abuztuan hainbat ikuskizun izango ditugu herrian, kultura gosea asetzeko mokadu txiki bezain bizia.

Espazio publikoa kulturarako berreskuratuzeko helburuarekin, uztaileko eta abuztuko kultura programazioa aurkeztu zuen Udalak joan den astean. Hiru kontzertu, antzerki emanaldi bi eta zortzi pelikula eskainiko dituzte bi hilabete hauetan, poliki-poliki herriko kultura egitasmoak bultzatzeko asmoz.

Martitzenean hasi zen egitaraua 'Ramper' antzezlanarekin. Udalaren asmoa espazio publikoa kulturarako berreskuratzea denez, antzerkia kalean egin zen, Eibarko Bizikleta plazan, hain zuzen ere. Itxialdiaren aurretik programatuta zegoen antzezlan da 'Ramper', baina alarma-egoeraren ondorioz ezin izan zuten lehenago ekarri.

Eguaztenean, berriz, aire zabaleko zinearen txanda izan zen: 'Asterix eta edabe magikoaren errezeta' pelikula eman



zuten Legarreko frontoian. Eta atzo, herriko musikarien talentu handiaren erakusle, itxialdi sasoian Miren Zulaikak, Gorka Martinez de Lagosek eta Asier Cascanek sortutako 'Harira' taldeak bere bizitzako lehen kontzertua eskaini zuen Untzagan. Gitarra birekin eta aho-tsarekin folk kutsuko abestiak eraman zituzten plazara, gazte eta helduentzako gozagarri.

'Julen' eta 'Debajo del paraguas' Herriko musikariek jarriko diote doinua udari. Izan ere, 'Harira' taldearen ondoren, beste bi sortzaile eibartarrak izango dute herrian kontzertua eskaintzeko aukera.

Hilaren 14an, martitzenean, Julen Leturiondok joko du zuzenean Untzagan, 22:00etan. Artista eibartarrak 'Julen' izeneko proiektua abiatu berri du eta kontzertu berezia eskaintzeko gogotsu dago. "Nik sortutako abestiak eta beste kantutik batzuren bertsioak joko ditut". Itxialdiak hausnartarako aukera eman dio Juleni eta prentsurrekoan aipatu zuenez, "musika entretenimendua baino zerbait gehiago da".

Hurrengo martitzenean, hilaren 21ean, leku eta ordu berean, 'Debajo del paraguas' taldearen txanda izango da. Los40 Euskadiko 'Cara A' saioko lehen postuan birritan izan da taldea, eta Cadena Dial-en 'Dejate llevar' eta Los40-ren 'Summer Live' biretan hartu du parte. Ainhoa Arroita jauregi eibartarra da taldearen abeslaria, eta giro ona eta poztasuna ekarriko dute Untzagara.

Kontzertuak ikusi ahal izateko doako sarrerak eskuratzea



BENIGNO FERNANDEZ FERNANDEZ

2020ko uztailearen 1ean hil zen, 88 urterekin

**ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN.**

Jose eta Juliren lagunak



Egitaraua >>>

MUSIKA			
14 (martitzena)	22:00	Julen	Untzagan
21 (martitzena)	22:00	Debajo del paraguas	Untzagan
ANTZERKIA			
16 (eguna)	19:00	Ene ba!	Untzagan
ZINEA			
15 (eguztena)	22:00	Lo dejo cuando quiera	Untzagan
22 (eguztena)	22:00	Agur Etxebeste	Karmengo parkean
29 (eguztena)	22:00	Joker	Untzagan

INFORMAZIO PRAKTIKOA

- Sarrerak lortzeko: Coliseoan (astelehenetik barixakura 17:30etik 19:30era) eta Kutxabanken.
- Sarrera doan izango da.
- Maskara jantzi behar da derrigorrez.
- Gel hidroalkoholikoa egongo da eskura.



Ainhoa Arroitauregi eibartarra da 'Debajo del paraguas' taldeko abeslaria.



'Ene ba!' antzezlaneko protagonistak.

derrigorrezkoa izango da eta Coliseoan (astelehenetik barixakura 17:30etik 19:30era) edo Kutxabanken lortu ahal izango dira. Gainera, emanaldia hasi aurretik sarrerarik libre egonez gero, egunean bertan Untzagan sarrerak jarriko dituzte eskuragai. Untzagako emanaldietarako 300 sarrera egongo dira, bakoitzari jarleku bat dagokio eta maskara jantzi beharko da derrigorrez. Gainera, gel hidroalkoholikoa egongo da ikusleen eskura.

'Ene ba!' antzezlan

Itxialdiaren ondorioz bertan behera geratu dira udaberrirako programatuta zeuden hainbat kultura ekitaldi, baina uztailean izango dugu horietako batzuez gozatzeko aukera. 'Ramper' antzezlan ikusteko aukera izan dugun bezala, hilaren 16an, eguenean, 'Ene ba!' antzezlan egingo da 22:00etan Untzagan.

'Ene ba!' Txalo Produksioak antzerki-taldearen ikuskizuna da eta Asier Sota, Ane Gabarain,

Mikel Laskurain, Joxe Kruz Gurruztaga eta Alazne Etxeberria dira komedia barregarri horren protagonistak. Untzagan aire librean antzezteko erroka izango da eurentzat.

Antzerkia ikusteko 200 sarrera egongo dira eskuragai (Coliseoan eta Kutxabanken) eta maskara jantzea derrigorrezkoa izango da.

Aire zabaleko zinea

Udalak aurten bikoiztu egin du aire zabaleko zinearen al-

deko apostua eta zortzi pelikula eskainiko ditu uztailean eta abuztuan. Uztailean lau lan egongo dira ikusgai: aurretik aipatutako 'Asterix eta edabe magikoaren errezeta', 'Lo dejo cuando quiera' (15ean, 22:00etan, Untzagan), 'Agur Etxebeste' (22an, 22:00etan, Karmengo parkean) eta 'Joker' (29an, 22:00etan, Untzagan).

Euria eginez gero, kontzertuak eta antzezlanak Coliseoan egingo dira, eta zinea udaletxeko arkupeetan emango da.



Maria Unanue Zubimendi

Zelako poztasuna hartu genuen, laurogei urte eginda, Biztu irakurketa-taldera etorri zinenen. Zure interesa, zure eritziak, zure irribarre goxoa, gure astelehenak pozteko uneak ziren. "Adin gabeko nagusia" izan zara, irakurketak fisikoki eta mentalki guztioi laguntzen digulako aberasten. Eskerrik asko eskainitako eredu eta heldutasunarengatik.

UNTZAGANO JUBILATU-ETXENO BIZTU IRAKURKETA-TALDEKOEK



>>> Aldi berean egindako lau fitxaketa iragarritz hasi zuen astea Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldeak. Gorenera igo eta gero, talde lehiakorra osatzeko lanetan dihardute zuzendari-tzakoeak eta kolpe batean Noelia Garcia atezaina, Queralt Gomez atzelaria, eta Maria Llompart eta Aida Esteve erdilariak ekarri ditu. Azkenak hiru urterako sinatu du eta beste hirurek 2022ra arte. Atezainak 27 urte ditu eta Lleidatik dator, atzelariak 23 ditu eta Seagullen eman ditu azken lau denboraldiak, eta erdilari biak 19 urteko gazteak dira: Llompart Levante

Iberdrola Ligako Eibar FT kataluniartzen hasi da



Las Planasetik dator eta Esteve Bartzelonaren bigarren talde-tik, biak ere Espainiako beheko mailako selekzioetan jokatu dute eta Llompart Europako txapelduna izan zen 19 urtetik beherako taldearekin.

Taldeko beste zazpi jokalarik kontratua berritu dute azken egunetan: hori da Carla Morera, Honka Yonei, Sheila Elorza, Arene Altonaga, Malena Mieres, Nerea Abacens eta Nerea Gantxegiren kasua. Bestalde, Silvia Perez, Ines Aiestaran, Tomo Matsukawa, Tatay Calvo, Irantzu Ibarrola eta Ane Lopezek taldea laga dute.

Everesteko euskal espedizioa omendu zuten Kalamuan hilaren 5ean


>>> Aurreko domekan Gu Ere Bai ekimenetik antolatutako deialdian kuadrilatxo bat zen Kalamuan 1980ko Euskal Espedizioa omentzeko ekitaldian. Egin egunkarian eta Pyrenaica aldizkarian jardundako Antton Iturriza mendizaleak oroiga-

rri dotorea jaso zuen, Martin Zabaletarekin Everest gainerraino igo zuen Pasang Temba irudikatzen duen mosaikoa eta, horrekin batera, maiatzaren 16an eta 17an Euskal Herriko mendietan ateratako ia 300 mendizaleen (bakoitzak iku-



rrina eskuetan duela) argazkiekin. Beste hiru mosaiko ere banatu ziren: espedizio hartako kide izan zen Emilio Hernandezoren familiakoei, maiatzeko argazkia bertan Kalamuan ateratu zuen Mikel Urkiari eta, azkenik, euskal selekzioaren aldeko

mendi-martxa antolatzen duen Txumai Iturriri. Pandemiaren erruz azken 20 urteotako mendi-martxa aurten ezin bada egin ere, "2021ean denok gonbidatuta gaudela" esan zuen. Ekitaldiarekin amaitzeko familia-erreturua egin zuten.



Pello Osoro indarrak berreskuratzen entrenamendu-saioa amaitu ondoren.

Pello Osoro triatloilariak bakarrik amaitu zuen entrenamendu saioa

>>> "Astakeriatzat" ere jo du batek baino gehiagok Eibarko triatloilariaren azken entrenamendu-saioa. Txomin anaiarekin eta beste hainbat lagunekin abiatutako saioan beste inor ez zen gai izan jarraitzeko eta 333,32 kilometroko ibilbidea osatu zuen bizikletan, Gipuzkoa eta Bizkaian zehar, eta 4.153 metroko desnibela gaindituz, guzti hori 11 ordu eta bi minutuko denboran. Pellok berak bere

Twitter kontuan idatzi zuenez, "bi hilabetez zoro bat etxean giltzaperatzen baduzu horrelako gauzak gertatzen dira". Abuztuaren 15ean Frantzian jokatuko den Embrunman triatloia lehiatzea du helburu Eibarko atletak: distantzia luzeko proba izango da, XXL motakoa, eta 3,8 kilometro igerian, 185 bizikleta gainean eta 42ko maratoia antxintxiketan osatu beharko dute parte-hartzaileek.



Ohiko zaintza egiteaz gain, sorosleek betebeharrak izango dituzte aurten.

Sorosleen zeregin berriak igerileku sasoi berezienean

Uztailaren 1ean, joan den eguaztenean, ireki zituzten kanpoko igerilekuak eta baita Orbeakoak ere (Ipuruako igerilekuak irailean zabalduko dituzte, hainbat hobekuntza-lan egin behar dituztelako).

Eguraldi lainotsu eta freskoa-ekin (udan gaudela kontuan izanda), lehen egunak lasaiak izan ziren kanpoko igerilekuan. Sorosleek eskertu zuten horrela izatea, koronabirusaren ondorioz ohizko jardunean baino hainbat eginkizun gehiago egin beharko dituztelako aurten.

Kanpoko igerilekuetara joateko derrigorrezkoa da hitzordua hartzea (jende pilaketak galarazteko) eta sarrerara iritsi bezain laster ikusten da aurtengo igerileku sasoi ez dela beti bezalakoa izango. Sartu aurretik, lurrean hainbat marka daude ilara egiten denean jendearen arteko distantziari eus-

teko. Sartzeko ordua heltzean, oinetakoak garbitu, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu eta gorputzaren tenperatura neurtu behar da. Eta, guztia ondo egonez gero, bakoitzak bere tokia hartuko du igerilekuan zehar lurrean markatu dituzten partzeletan.

Gehinez ordu bi eta erdi egon daiteke igerilekuan eta, ondoren, lekuak txukun laga behar dira erabiltzaile berriak etorri aurretik. “Hori da gauza berezi bakarra, desinfektatzen ibili behar izatea”, esan digu

“Orain jende gutxiago dago igerilekuan eta horrek zaintza errazten du”


sorosle batek, “bestela, orain jende gutxiago dago igerilekuan eta horrek erraztu egiten du zaintza”.

Sorosleak adi egoten dira erabiltzaileek protokoloa ondo jarraitzen duten ikusten, baina oraingoz jendeak arauak ondo betetzen dituztela diote.

Orbean lasaiago

Igeri egin nahi duenak nahiago izaten du Orbeara joan kanpoko igerilekuetara baino. Bestean bezala, Orbean igeri egiteko hitzordua hartu behar da

“Orbean, kale bakoitzean pertsona bakarra egonik, lasaiago egiten da igeri”



eta txanda bakoitzean bost lagun egon daitezke igerian aldi berean, kale bakoitzean lagun bat. “Horrek lana errazten digu eta igerian dabilzanentzat ere lasaiagoa da, kalean bakarrik daudelako”, dio sorosleak.

Sorosleek maskara jantzen dute erabiltzaileak igerilekuan sartzen eta irteten direnean. Gainera, erabiltzaileak bertan duxatu daitezkeenez, sorosleek duxa desinfektatu behar dute. “Barandak, aldageletako atea eta spa gunea ere desinfektatzen ditugu”.

Erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko egiten dute lan sorosleek, orain are gehiago.

Errotara asto gainean

Asto gainean errotara joaten zen sarri, Barrena Txikira, arto-irin bila. Apalategi inguruan ere beste errota bat zegoen. Errotak: Eitzagan, Ezkaregin...



Apalategiko errota, Julen Zabaletaren marrazkian. Errotatik berreskuratu ziren elementuak Eltzartzagako zubiarekin daude, Azitaingo biribilgunean.



Julian Echeverria Oruna
(1913 – 2005)

Otaola-Kiñarraga bailarako Ubitxa baserrian jaiotakoa. Aita, baserri hortakoa; ama, Jobita Oruna (Aramaiokoa). 14 urterekin Eizaganera joan zen lanera, baskulagintzan ikastera. 20 urterekin, Bittor Sarasketanera. Han, 65 urte bete arte jardun zuen lanean.

Julian Echeverriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Oñ aittatu dozu, arto billa zu juaten ziñala, ez?] Artuan billa, bai. Arturuna erosi, ta panaderuari esaten (...)“Oye, amak esan desta berrogei kilo arturuna emoteko”. Ta hark errotia eukitzen zebeñ, zaku bat hartzen zebeñ ta “ra!” paliakin bete, pisau ta “aiba!”, astua eruaten neban nik, ta errotarixak eitten eban “da!” bota astuari, lotu sokiakin, “hala, etxera!” Ama bera [...] dirua eruatera. Ama ez dakit zelan arreglatzen zan, nik ez neban eruaten dirurik eta! Amak pagauko zetsan! [Eta nora juaten ziñan orduan eroatera?] Barrena Txikixa! Oin han, badago ba... gasolinaria? [Otolan?] Bai. Gasolin... ha baiño honutzatxuago zan Barrena Txikixa, errotia zeguan han. Ta han ura etortzen zan zeretik, Bizkaittik gora, Ermua ondotik ura, presia [...] ta errotia zeguan hor. (...) [Eta beste errotarik bazeguan hamen inguruan?] Apalategin (...) Gero beste bat, Ezkaregi-Errotia edo hor basarrixan. (...) Gero Kondia Eitza(ga)n, hark be errotia, uruna ekan (...). Lehen errota asko eguan!”

E
IBARTARREN



Atxa baserriaren aurrean, lau baserritar eta bi behi (Aginaga). Erdian belar-meta bat.
INDALECIO OJANGUREN FONDOA.


Idiak eta gurdiak

Lehen garoa, bedarra, simaurra, zuhaitzak, e.a. gurdiarekin garraiatzen ziren. Dena gurdiarekin eta idi-parearekin egiten zen. Idiak egun guztian lanean. Gurdi klase bakoitza lan baterako erabiltzen zen.



Vicente Areta Lezeta
(1938 –)

Arrate bailarako Mendigoiti baserrian jaiotakoa 1938an. Baserriko lan eta bizimoduarekin lotura duten gaiak asko interesatzen zaizkio eta oso hiztun egokia da baserriko gaietaz azalpenak emateko. “Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea” proiektuko lekuko ere izan zen.



Vicente Aretari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Eta lehen aittatu dozu, lehen askoz lan gehixago eitten zebela idixak eta...] Bueno...! Bueno, lehen labrau eitten zian honek danok! [Ze bihar eitten zeben? Zetako erabiltzen ziran idixak?] Mekauen, idixak ba... Bedarra ta garua ta simorra ta... honek danak labrau eta... Ta mendittik be, oin kamioiak eta, baiña lehen idixekin bajatzen zittuen tronguak eta zerrara ta... Paguak eta danak! Tratora ta azaldu arte. [Ta dana burdixakin?] Ta burdixakin, horixe! Ta hartu Arraten... Arraten hartu elizaurrian igual, ta Maltzara trongua! Egunian biaje bi: goixian bat ta atsaldian bestia. Neu be ibilita nago mutil gaztia! Arratetik Saturixora, Elgoibarko Saturixora! Idixekin! Goixian biaje bat, eguardixan bazkaldu, idixak eta geuk, ta atsaldian beste biaje bat, ta illuntzian etxera. Horrengo goixian iguala, “idéntico”. Ta hurrengo goixian beste bat [Arbolak-eta mobitzeko, baiña, ze erabiltzen zan, burdixa be bai, edo...] Burdi-motza.”



Ignacio Zuloagaren bizitza eta obra aztertu dituzte bere jaiotzaren 150. urteurrenean

Aurten betetzen dira 150 urte Ignacio Zuloaga (1870-1945) margolari eibartarra jaio zela eta, horren aitzakiarekin, “Ignacio Zuloaga berrikusiz: haren pintura eta garaia, jaiotzaren 150. urteurrenean” izenburuko eman dute aste honetan UPV/EHUko Uda Ikastaroen barruan. Online izan den ikastaroak Zuloaga Fundazioaren

eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzaren laguntza jaso du. Antolatzaileen berbetan, “une aproposa da margolariaren ibilbidea berrikusi, haren gaiak aztertu eta laga zigun obraren alderdi garrantzitsuenetako batzuk berraztertzeke, alor horretan azken urteetan egin diren berrikuntzei erreparatuta”.



Iruñera joan barik, aurtengo sanferminak Asola Berrin ospatu dituzte Azitaingo lagunek

Argazkian ikusten dituzuen eibartar hauek urtero-urtero joan ohi dira Iruñera, ...eta kitto! aldizkaria lagun dutela, San Fermin jaiak bertatik bertara bizi eta ospatzera. Honezkerok tradizio bilakatu duten ohitura, baina, hautsi egin behar izan dute oraingoan, beste askok bezala. Koronabirusaren kutsatzeak

saihesteko San Fermin jairik ez ospatzea erabaki dutela ikusita, plana aldatu eta, herritik irten barik ere, primeran ospatu zuten San Fermin eguna Asola Berri elkartearen. Umorerik ez zaie falta, gainera, entziero bariko urte honetan “Azitaingo izkuen erretratu ofiziala” egin eta bidali digute eta!



Argazki erakusketak tabernetan

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak apirilera prestatu zituen erakusketak bertan behera geratu ziren koronabirusaren pandemiaren ondorioz, baina atzerapenarekin bada ere, hilabete honetan ikusteko aukera izango dugu. Beraz, uztailearen amaierara arte, Bilboko Zuri Beltza Argazki Taldekoen lanak ikusteko moduan egongo dira Ambigu, Depor eta Portalea tabernetan.

Udalaren Telegram kanal berriak

‘Eibarko Kultura’ eta ‘Andretxea Eibar’ izeneko Telegram kanalak sortu dituzte, Udaleko kultura arloak eta Andretxeak antolatzen dituzten jarduerara, ekitaldi, ikastaro edo tailerrekin buruz berri emateko. Beraz, kanal biak jarraitu nahi izanez gero, Telegramera jo, taldeak bilatu eta kanalei jarraitzeko botoia sakatu, besterik ez da behar. Era berean, Udaleko arlo bietatik jakinarazi dutenez, orain dela hilabete batzuk martxan ipinitako WhatsApp zerbitzua bertan behera laga dute.



Aratosteetako argazki erakusketa

Aurreko astean zabaldu zituzten berriz ere Topalekuko ateak, koronabirusak eragindako egoerarengatik martxotik itxita egon eta gero. Eguen Zuri lehiaketara aurkeztutako argazkiak ipini dituzte ikusgai Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan eta uztailearen 19ra arte egongo da ikustera joateko aukera, Kultu taberna zabalik dagoenean (Topalekurako sarrera tabernako atetik izango da).



Kalean libre? MAITANE CAMPOS

4		6			5		2	
	3		7		4			
			9	3				
	8	5	6	2				3
	4			5	7	6	1	
				1	9			
			3		8		6	
	1		5			9		8

4	8		1		2	7	9	
		9				3		
7							4	
	5				4			
	3	4				6	8	
			7				2	
	7							6
		1				8		
	9	2	6		1		7	3

soluzioa


8	4	6	9	7	5	3	1	2
1	3		7		4			
			9	3				
	8	5	6	2				3
	4			5	7	6	1	
				1	9			
			3		8		6	
	1		5			9		8

SUDOKUAK

soluzioa

4	8		1		2	7	9	
		9				3		
7							4	
	5				4			
	3	4				6	8	
			7				2	
	7							6
		1				8		
	9	2	6		1		7	3

KOLOREZTATZEKO



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Farmaziak

BARIXAKUA 10

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 11

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

DOMEKA 12

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

ASTELEHENA 13

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

MARTITZENA 14

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

EGUAZTENA 15

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

EGUENA 16

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

BARIXAKUA 17

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2020an,
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Pilar Suarez Vide.** 95 urte. 2020-7-1.
- **Jesus Arrieta Agirre.** 96 urte. 2020-7-2.
- **Maria Unanue Zubimendi.** 96 urte. 2020-7-3.
- **Josefa Novoa ProL.** 86 urte. 2020-7-4.
- **Victor Arranza Criado.** 88 urte. 2020-7-4.
- **Timotea Etxaniz San Martin.** 88 urte. 2020-7-5.
- **Fernando Ogiza Gizazola.** 69 urte. 2020-7-7.
- **Tomas Carral Amorrortu.** 95 urte. 2020-7-7

Jaiotakoak

- **Mikel Rodriguez Ruiz.** 2020-6-24.
- **Ziad Er Raghay Driouich.** 2020-6-25.
- **Nikole Jauregi Goikoetxea.** 2020-6-19.
- **Gorka Ceballos Molina.** 2020-6-29.
- **Aukan Mutiloa Fuentes.** 2020-6-30.
- **Asier Astiazaran Sanchez.** 2020-7-4.



ek!

**ESKELAK,
URTEURRENAK
ESKERTZAK...
jartzeko:**

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

ek!

**ETXEKOEN
ZORION-
AGURRAK
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus



MARITXU DEL BARRIO AGIRREBEÑA

I. URTEURRENA: 2019-VII-13

"Sekula ez zaitugu ahaztuko"
ETXEKOAK



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **NAIA**, domekan 8urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Jarraitu horrela, alai eta zoriontsu!



Zorionak, **ALAITZ**, gaur 7 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat asko maite zaittuen famelixaren eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, **ANER!!!** Domekan 10!!! Jarraitu hain alai eta jator izaten. Milla kilo musu; berezixena, Urkoren partez!!!



Zorionak, **MAIA!!**, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu horren alai eta jatorra izaten. Laztan haundixak famelixa guztiaren partez!




Zorionak, **MARKEL**, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Aitxitxa, amama, zure arreba Aitana eta lehengusiña Maialenen partez.



Zorionak, **MALEN**, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta! Patxo potolo-potolo bat famelixa guztiaren partez!!!



Zorionak, **MIKEL**, domekan 11 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **LUR** eta **IZARO**, hillaren 2xan 11 urte bete zenduezen-eta. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Miren, Malen eta Lierren partez.



Zorionak, **UXUE** Askasibar (domekan 10 urte beteko dozuz) eta **OINATZ** (abuztuaren 9xan 7 urte egingo dozuz). Oso ondo pasa zuen egunak. Etxekuen partez.

zarelakogara

Izen-abizenak..... Helbidea.....

Tfnoa / emaila..... NAN.....

Jaiotze data..... K/K zenbakia.....

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

* Urteko kopuruak dira

...eta kitto! Euskara Elkarte

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76

elkartea@etakitto.eus

Iragarki laburrak



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea hartuko nuke Urki-Txaltzazelai inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

4. LANA

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta. Tel. 610-067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 602-852095.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-259997.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 604-149786.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo sukaldeko lanak egiteko. Tel. 654-247655.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Haur Hezkuntzako formakuntzarekin. Tel. 689-618820.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean arratsalde umeak zaintzeko. Tel. 688-628235.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 643-115699.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. Tel. 632-820091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-474612.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 631-611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Esperientzia. Tel. 631-121148.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-486770.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-044001.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zain-

tzeko eta mendian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 662-415709.

- Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 602-108724.
- Neska eskaintzen da uztailean eta abuztuan umeak zaintzeko. 649-025614.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-776998.
- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 610-395225.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 643-278344.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko. Tel. 665-733162.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 634-437852.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, mendian edo baserrian lan egiteko eta eraikuntzan jarduteko. Tel. 602-188264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-470600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-963048.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Tiro Pitxoi jate-txerako. Autoa izatea ezinbestekoa. Bidali curriculum Eibarko 46 postakutxatilara.
- Astebururako zerbitzaria behar da mahaia zerbitzeko. Esperientziarekin. Tel. 620-810120.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH, Batxilergo eta selektibitateko klase partikularrak ematen dira. Aurrez-aurre zein on-line. Tel. 678-937827 eta 943-584166.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ohea salgai. "Tren-motako" bi ohe-litera, komposizio politean, lau kaxoi eta armairuarekin. Egoera onean eta merke. Tel. 670-497038. Esther.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Jaso onenen aholkua

Tf: 943.44.07.52
gausarksl@gausark.es
www.gausark.es

ERREHABILITAZIO ZORROTZEENEI
ERE ERANTZUTENAKO KONPONBIDEAK

- Fatxaden errehabilitazioa.
- Errehabilitazio integralak.
- Eraikinen ikuskapen teknikoak.
- Txostenak.
- Igogailuendako aholkularitza eta proiektua.
- Udal lizentzien bideratzea.
- Adituak Errehabilitaziorako Laguntzetan.

Gausark
ARQUITECTURA



%20_{ko}

Deskontua EIT idazketan
Teknikak covid-aurkako neurriekin



IXUA
HOTELA



HOTELA: 943 121 272
JATETXEA: 943 701 292
Mandiola Balle 8, Eibar
info@ixuahotela.com
www.ixuahotela.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Aurtran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.


Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com